

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Txomin Artetxe Amuriza

Arteaga, Bizkaia
(1925-2018)

Aurkibidea



Biografia



Arteako Iturria baserrian
sortu zen bost neba-arrebako
familia batean. Aita bertakoa
zuen eta ama Igorreko
Iturtzakoa. Sei urterekin hasi
zen herriko eskolan eta
dotrina euskaraz jaso zuen.
Gerra garaian, frontea
heldzerakoan, Zeberiora alde
egin zuten etxekoek.
Hamahiru urterekin, gerra
amaitu aurretik, abadetzako
bidea hartu zuen: Guardiako
(Arabar Errioxa) seminarioan
urte bat igaro zuen, beste bat
Bergarakoan eta azken 10ak
Gasteizkoan. Zeberio eta
Apatamonasterioko parrokoa
izan ostean, 1960. urtean,
Ibarruriko (gaur egun Muxika)
elizaren ardura hartu zuen
eta bertan bizi izan da
geroztik. Urte horietan
guztietan, Frankismo garaian,
bi aldiz egon zen preso: 1966.
urtean, gobernadoreak
sermoi bat dela-eta jarritako
isuna ez ordaintzearen
Zamorako kartzelan egon zen
beste 11 abade eta
fraiderekin batera; eta, 1975.
urtean, 15 egun Gernika-
Lumoko Guardia Zibilen
kuartelean pasatu ostean, 15
hilabete pasatu zituen
Basauriko espetxean
erakunde armatuari lagundu
ziolakoan. Ibarrurin igarotako
urteetan ekarpen handia egin
du herrian, jendearen
euskalduntze-alfabetatze
prozesuan zein kultur
transmisioan: urte batez
bertako umeen eskolako
maisu izan zen,
andrazkoentzako aditza
lantzeko eskolak eman
zituen, abesbatza sortu eta
indartu, umeekin euskal
kentak landu...

Zintak

ATE-003

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-01-18
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ATE-004

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-01-18
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

ATE-005

- **Proiektua:** Muxikako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-01-18
- **Iraupena:** 69 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com